

## ĨNIGO URKULLUREN HITZALDIA 19/01/2009

Euzkadi Buru Batzarra- Euzko Alderdi Jeltzalearen Aberri kontseilua denak gaurkoan itxiko ditu Euskal Gizartearekiko Hitzarmen Berria izenez deitu dugun egitasmoaren aurkezpenerako urratsak. Hauxe da gure Alderdiak etorkizunerako jarduera lerroen inguruan, bere historia osoan gauzatu duen gizarte **konpromisorik integralena eta aurrerakoiena**.

"Think Gaur Euskadi 2020" egitasmoa, hementxe bertan, Euskalduna Jauregiko Auditorioa den honetan aurkeztuko da datorren igandean bertan. Eta honako honetan, **eszenatokia bera da mezua**. Euskalduna ontziola izan zen eta gaur egun da mundu osoko batzar-jauregirik onena. Horixe da hain zuzen nahi dugun Euskadiren sinboloa. Denborak aurrera egin ahala eguneratzen den, eta aurrera egiten duen Herria.

**Think Gaur egitasmoak EAJ-PNV barruan eman diren aldaketa prozesuak agertarazten ditu.** Barru-barrutik eta hobera egin duen aldaketa da. Urte betea eman diogu hausnarketari, nazioarteko esperientziarik onenak ezagutzeari, eta gure herriko talde eta adituekin esperientzia hauek partekatzeari eta aztertzeari. Orain, ekiteko garaia iritsi zaigu. Orain, euskal gizartearen garapen eta ongizaterako proposamen katalogoa aurkeztu nahi dugu, eta gure lanaren bitartez erdietsi nahi dugun epe ertainerako etorkizunean dugu begirada. Hori da gu guztion helburua: **ekimen politikotik abiatuta, Euskadirentzako etorkizun hobea bultzatzea.**

Eta, Think gaur Euskadi 2020 prozesu honek emandako urrats berria, gaur euskal gizarte osoari komunikabideen bitartez zabaldu ahi diogun esaldi erraz eta esanguratsuarekin irudikatu nahi dugu: “ Jakin eta Egin, Saber Hacer”. Berba hauek azaltzen dute Eusko Alderdi Jeltzalearen ekimen politikoaren aro hau zertan den”

1. Jakin: gogora ekartzen ditu pertsonak, hauen prestakuntza, ezagutzak, ideiak...
2. Egin: Lan egiteko borondate eta jarrerari lotua, Herriarekiko konpromisoa, fidagarritasuna, segurtasuna eta konfiantza oinarri harturik, berme guztizko gestioari. Aldi berean, etorkizunerako egitasmo parte hartzaile , berri eta ondo zehaztua dakar berarekin.

“Think Gaur Euskadi 2020” honen esanahia da “Saber Hacer”.

“Jakin eta egin” da Think Gaur.

Eta, “ Jakin eta egin” lelo honen bidez, IRAGANAZ, ORAINAZ eta batez ere GEROAZ hitz egiten dugu. “Think Gaur Euskadi 2020 – Saber hacer / Jakin eta Egin”

Herria egiten Jakin, hazkunde instituzionala, industriaren birmoldaketa krisialdietan, Euskadiren modernizazioa, bakea lortzeko ekimenak, akordioak, gobernagarritasuna kolore bakarreko gobernuetan eta koalizioko gobernuetan, gutxiengo edo gehiengoan egonda...

Euzko Alderdi Jeltzaleak ERDIGUNEAN DAGOEN ALDERDIAREN lana egiten jakin izan du: euskal gizartearen gehiengoa batzen jakin izan duen erdiko bidea delako.

Eta, era berean, Alderdiak etorkizunerako egitasmo itxaropentsua du; Think Gaur Euskadi 2020. “Saber Hacer – Jakin eta egin”. Egitasmo honen bidez, Euskadi finkatuko dugu mendebaldeko herrialdeen goiko tokian. “Jakin eta Egin “ izen honek , gure izaeratik bertatik markatzen du etorkizunari begira dugun bokazioa. “Saber hacer – Jakin eta egin” izango da ,datorren igandean Euskalduna Jauregian, euskal gizartearekin partekatu nahi dugun ekitaldirako goiburua.

Ehunka lan bileren ostean, hainbat bidaia egin eta nazioarteko esperientziak ezagutu ondoren, mundu osoko pertsonekin eta Euskadiko sentsibiltate guztiakin elkartu ondoren; baina, batez ere, hain lan gogorra egin ondoren, azkenean iritsi da eguna. Datorren igandean, urtarrilak 25, euskal hiritargo osoa gonbidatu nahi dugu etorkizuna ezagutu dezan: Think Gaur Euskadi 2020 prozesuak emandako ondorioak.